ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko urtarrilaren 18a, ostirala • 8 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko abenduaren 28an hartutako erabakiaren laburpena: Genero-berdintasunaren alorrean proiektu eta ekintzak garatzeko diru-laguntzak emateko deialdia.2019 urtea

BDNS (identifikatzailea): 433912

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Elkarte feministak eta emakume-elkarteak, baita irabazi-asmorik gabeko entitate mistoak ere, entitatean bertan berdintasuna sustatzeko eta beren jarduera eremuan —kirola, hezkuntza, arlo soziala, kulturala eta abar— genero-berdintasunerako proiektu edo jarduerak egiteko sortutako espazio bat dutelarik.

Pertsona juridiko edo entitateek Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistro Nagusian izena emanda egon beharko dute, eta datuak eguneratuta eduki, edo, bestela, dagokien erregistro publikoan, eta Gasteizen eduki beharko dute egoitza —hala agertu beharko du erregistroan jasota—, behar bezala justifikatutako salbuespen-kasuetan izan ezik. Era berean, Gasteizko udalerria izan beharko dute jarduera-eremua —azken urtean udalerrian gutxienez jarduera bat egin dutelarik egiaztatu ahal izango dute hori, sortu zirenetik urtebete igaro gabekoak salbu—

Bigarrena. Helburua

Talde feministak eta LGTBI eta emakume-elkarteak sendotzen laguntzea, ikuspegi feminista edo genero-ikuspegi argia duten proiektuak finantzatuz. Helburu berarekin, entitatean bertan emakumeen partaidetza aktiboa sustatzeko eta beren jarduera eremuan —kirola, hezkuntza, arlo soziala, kulturala eta abar— genero-berdintasunerako proiektu edo jarduerak egiteko sortutako espazio bat duten entitate mistoen proiektuak sustatzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko abenduaren 28an egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 50.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hilabete laburpen hau ALHAOn argitaratzen den egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 28a

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria
ESTIBALIZ PEREDA SAGREDO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.01.18 06:52:46 Z